

I R A K U R

K E T A N I

N P L I K A T

U F O G

A I U N


A K H O B T


Z E K O P R

O I E K T U A



IRAKURKETAN  
INPLIKATURIKO GAITASUNAK  
HOBETZEKO PROIEKTUA





IRAKURKETAN  
INPLIKATURIKO GAITASUNAK  
HOBETZEKO PROIEKTUA




Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua

**Izenburua:** IRAKURKETAN INPLIKATURIKO GAITASUNAK  
HOBETZEKO PROIEKTUA  
**Argitaratzailea:** Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua  
© Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua  
**Diseinua:** Asis Bastida  
**Imprimaketa:** Zubillaga  
**L.G.:** NA - 1.661/2008

## AURKIBIDEA



<b>1. Sarrera</b>	5
<b>2. Irakurketa- eta idazketa-plana hezkuntzaren testuinguru berrian</b>	6
2.1. Irakurketa eta eskola-liburutegiak LOEn eta Nafarroako eskola-curriculumetan	6
2.2. Ebaluazioak	7
2.2.1. Zein gaitasun menperatzen dituzten gure ikasleek	9
2.2.2. Zein gaitasun ez dituzten menperatzen	9
<b>3. Irakurketa- eta idazketa-planaren helburuak</b>	10
<b>4. Irakurketa- eta idazketa-planaren oinarriak</b>	12
4.1. Irakurketaren kontzeptua	12
4.2. Irakurketa eta curriculumaren arloak	13
4.3. Irakurketa eta idazketa ikasgelako lanean txertatzea	14
4.4. Planaren ebaluazioa	15
<b>5. El plan de lectura y escritura del centro</b>	16
5.1. Zer den irakurketa- eta idazketa-plan bat	16
5.2. Planaren ezaugarriak, idatzizko dokumentua den aldetik	17
5.3. Printzipioak	18
5.4. Jarduketa zehatzak: lan proposamenak	21
5.5. Planaren prestaketa	24
5.6. Planaren garapenari buruzko ebaluazioa	26
<b>6. Recursos externos para desarrollar el plan</b>	27
6.1. Irakasleen prestakuntza	27
6.2. Irakasleei laguntzeko zentroetako baliabide materialak	27
6.3. Deialdiak	27
6.4. Webeko baliabideak	28
6.5. Ikastetxeei eta familiei zuzendutako kanpainak	30



## 1. Sarrera

Bigarren Hezkuntzako ikasleek, eskolatzeko-eta hori arrakastaz gaintzeko, aurkitzen dituzten zailtasunetatik handienetako bat da ez dutela irakurtzen dutena ulertzen, eta, horrenbestez, ez direla gai izaten aurkezten zaizkien kontzeptuak eta ideiak ulertzeko eta ikasgelan proposatzen zaizkien eginbeharrei aurre egiteko.

Eskoletan eta familietan irakurriaren ulermen falta horrengatik kezka badago, baina gizarteak berak, oro har, onartu egiten du nerabeak ikusizkoari “*engantxaturik*” daudela eta motibazio gutxi dutela irakurketari, plazer hutsez besterik ez bada ere, zentzua eta gustua harrapatzeko.

Irakurtzeko zaletasunak norberarentzat zalantzarik gabeko balioa izateaz gainera, eskolaren lehenbiziko erantzukizuna da behar besteko gaitasuna duten irakurleak prestatzea; hau da, ikasgelan irakurtzen, entzuten eta idazten den guztia ulertzeko eta adierazteko beharrezko buru-mekanismoak dituzten ikasleak. Baieztapen hori urrutit geratzen da maiz onartzen den beste ideia batetik, alegia, ulertzeko irakurketa giza zientzien helburu eta eginbehar eksklusiboa izatearen ideiatik. Arlo guztietan behar da gaitasun hori, eta inongo irakaslek ezin dio muzin egin ikasleengan testuak ulertzeko gaitasuna garatzeko erantzukizunari, testu horien bitartez eduki ugari transmititzen baitira.

Azken batean, testuen inguruko gaitasuna garatzea irakasle guztientzako helburu komuna izan behar du, hain zuzen ere bermatuta gera dadin ikasleek irakurtzen dutena ulertzen dutela eta gauza direla ulertu duten hori ahoz zein idatziz adierazteko.

Helburua ez da ikasketa-planak eta -programak aldatzea. Beste ezer baino lehen, irakurketaren, idazketaren eta ahozkotasanaren diziplinen arteko lanak dauzkan ondorioei buruz gogoeta egin beharra dago, eta, ondoren, behar diren estrategiak garatu beharko ditugu haiek curriculumeko arlo guztietan garatu ahal izateko.

Hartutako erabakiak, behar bezala zehaztuta, ikastetxe bakoitzeko Irakurketa-Plana ekarraziko dute, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan.

Irakurketa-Planaren xedea da irakasleek egunero, ez soilik noizbehinka edo modu anekdotikoan, gauzatzen dituzten jarduera errealak koordinatzea. Horrenbestez, balizko egokitzapen edo aldaketan menpe egon behar duen tresna dinamikoa izanen da.

Hezkuntza Departamentuak bere gain hartzen du ikastetxeei laguntza eta aholkua emateko lana, betebeharrak hori bete dezaten; izan ere, delako betebeharra jasota dator bai Hezkuntzaren Lege Organikoan, bai Nafarroako Foru Komunita-

teko curriculumen garapenean, irakaskuntzaren kalitatea hobetzen duten faktoreetako bat dela jotzen baita.

2

## Irakurketa- eta idazketa-plana hezkuntzaren testuinguru berrian

Ikasturte honetan, 2007-2008 ikasturtean, garrantzi handiko zenbait gertakari hasi dira:

1. Hezkuntzaren Lege Organikoak eta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum berriek hartu dute indarra, eta haietan irakurketa eta eskoletako liburutegiak berariaz aipatzen dira.
2. PISA 2006 ebaluazioaren emaitzak argitaratu dira, eta haietan Hezkuntza Departamentuak parte hartu zuen, Nafarroa ordezkatzeko lagin batekin.

6

### 2.1

#### Irakurketa eta eskola-liburutegiak LOEn eta Nafarroako eskola-curriculumetan

LOEren artikuluek irakurketari eta eskola-liburutegiei buruzko garrantziko aipamenak egiten dituzte. Zehazki, legeak administrazioak konprometitzen ditu irakurketaren sustapenari eta eskoletako liburutegien erabilerari lehentasunezko arreta eman diezaioten, irakaskuntzaren kalitatea errazten duten faktoreak baitira.

Irakurketa sustatzeari dagokionez, legeak honakoak jasotzen ditu:

- ▼ Lehen Hezkuntzan irakurtzeko ohitura garatzea (egunero irakurtzeko denbora bat hartzea).
- ▼ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ahozko eta idatzizko adierazpen zuzena lantzea (arlotzietako denbora bat eman behar dute horretan).
- ▼ Batxilergoan irakurtzeko ohitura sendotzea (administrazioek neurriak hartu behar dituzte arlo guztietan irakurketa eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna bultzatzeko).



- ▾ Abian jartzea irakurketa sustatzeko plan bat.

Eskoletako liburutegiei dagokienez, honakoetarako planak lantzea aurreikusi da:

- ▾ Liburutegien dotazioa osatzea, irakurketaren sustapena lagun dezaten eta curriculumeko arlo guztietatik ikaskuntzarako baliabideak bidera ditzaten.
- ▾ Hezkuntza erkidegorako zabalik dauden eremuetan antolatzea.
- ▾ Udal liburutegien erabilerari buruzko akordioak ezartzea.

Nafarroan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen dituzten foru dekretuetan, ikasleen garapen pertsonalari eta prestakuntza-garapenari koherentzia eta jarraitutasuna ematen dieten bi hezkuntza-printzipio ezartzen dira, bestek beste:

- ▾ Ulertuzko irakurketaren, idazketaren eta ahozko adierazpenaren tratamendua, etapa desberdinetako arlo guztien ikasketaren bitartez tratamendu integratu bat behar da, batetik ikasketak elkarren osagarriak izan daitezen, eta bestetik, hizkuntza bakoitzaren alderdi linguistiko espezifikoaren arteko kontraste-lana eta tresna-hizkuntzetan ikasitakoa beste hizkuntzetara transferitzeko, aplikatzeko eta orokortzeko lana –eta alderantzizkoa– errazte aldera.
- ▾ Eskolako liburutegia baliabide-zentro antolatu baten gisara ulertzea, era guztietako euskarriekin, curriculumeko arlo guztietako ikaskuntza laguntzeko era irakurketa sustatzeko.

Printzipio horiek berriz ere aipatzen dira dekretu guztietako artikuluetan, bai eta curriculum arlo guztietako helburuetan eta ebaluazio irizpideetan ere.

## 2.2 Irakurtzeko gaitasunen ebaluazioa

Oro har, ontzat jotzen da errendimenduari baterako erlazioa duten faktoreetako bi direla ikasleen errendimenduen barneko ebaluazioa eta kanpoko kanpoko ebaluazioa. Ikastetxeen barneko ebaluazioa eta kanpoko ebaluazioak elkarren aberasgarri suertatzen diren bi ikuspegi osagarriak dira. Horregatik, Hezkuntza Departamentuak ikastetxeen barneko ebaluazioa eta kanpoko ebaluazioa sustatu

izan ditu, bai foru lurraldearen mailan, bai nazio eta nazioarte mailan ere. Ebaluazioekin lortzen diren emaitzek aukera ematen dute gune indartsuak eta hobetu beharreko arloak antzemateko, eta horrek bidea ematen digu hurrengo urteetako hobekuntza-planak bideratzeko.

Dauzkaten muga guztiekin ere, nazioarteko ebaluazioak ekarpen garrantzitsua dira hezkuntza sistemetarako. Helburuak definitzerakoan, adostasun zabal eta kultur anitzekoa suposatzen dute; ikasleen ezagupenei eta trebetasunei buruzko informazioa ematen dute; aukera ematen dute parte hartutako herrialdeetako emaitzak elkarrekin alderatzeko; joerak aztertzea bideratzen dute; datuak ematen dituzte errendimenduarekin loturiko faktoreei buruz, eta errendimendu handiagoak lortzen diren hezkuntza sistemen hezkuntza-praktika egokiak ezagutzea sustatzen dute. Nazioarteko ebaluazioen azken alderdi horrek informazioa ematen digu emaitza onenak dituzten herrialdeek batera aplikatzen dituzten neurriei buruz:

- ▼ Programa egituratu eta sistematizatuak aplikatzen dituzte, curriculum helburu zehatzekin eta errendimenduari buruzko estandarrekin; haietan, izan ere, espero diren ikaskuntzen deskribapena eta maila desberdinetan ikasleek lortzen dituzten produktzioen adibideak jasotzen dira.
- ▼ Kanpoko ebaluaziotik heldu diren datuak erabiltzen dituzte haren eraginkortasuna egiaztatzeko, eta kanpoko ebaluazioarekin koherentea den barneko ebaluazio bat erabiltzen dute.
- ▼ Ikastetxearen barruan, jarduerak antolatzen dituzte elkarren desberdinak diren baina koordinaturik dauden hiru ardatzetan: irakurketa eta idazketa eskolako hizkuntzekin bat datozen arloetan; irakurketa eta idazketa curriculumerako zeharkako gaitasunak diren aldetik, eta berariazko laguntzak ematea irakurtzeko zailtasunak nozitzeko egoeran dauden ikasleei.
- ▼ Ikastetxetik kanpoko jarduerari dagokienez, garrantzi berezia ematen zaio familiaren eta erkidegoaren inplikazioari.

Nafarroari dagokionez, PISAk 2006an eginiko ebaluazioaren emaitzek informazio oso baliotsua eskaintzen dute 15 urteko ikasleek irakurtzeko duten gaitasunari buruz. Lorturiko batez besteko puntuazioa da gehien zabaldu den datua eta larritasun handiena eragiten duena, zeren eta gure ikasleak, taula batean, batzuen gainean baina beste batzuen azpian jartzen baititu. Hala eta guztiz ere, beste datu bat badago eskola-esparruan transzendentzia handiagoa duena: gaitasun mailen araberako errendimenduaren emaitza. PISAk bost mailatan jartzen ditu irakurketari buruzko emaitzak, puntuazioen esanahia hobeki uler dadin. Maila bakoitzak ikaslearen gaitasun bat adierazten du, eta gaitasun hori mailan eta haren zailtasunean jasotako galderen edukiak deskribatzen dute. Nafarroan,

maila horretan exijentzia handiagoko irakurketa-lanak sartzen dituen ikasleen ehunekoa OCDEko batez bestekoa baino txikiagoa da, eta horrek esan nahi du irakurketaren arloko bikaintasuna ikasle gutxik lortzen dutela. Datu hori oso kontuan hartzekoa da irakurketa eta idazketa hurrengo urteetan hobetu beharreko arloak direla planteatzeko orduan.

### 2.2.1

#### **Irakurketaren arloko zein gaitasun menperatzen dituzten gure ikasleek**

- ▼ Gure ikasleek testuetako informazio esplizitua ulertzen dute, bai testu jarraituetan bai etenak dituzten testuetan (grafikoak, era guztietako informazioa dakarten eskemak eta abar). Badakite testu horiei buruzko hitzez hitzeko galderari erantzuten, baldin eta testuaren zati batean kokaturik badaude.
- ▼ Gainera testua orokorrean ulertzen dute; hau da, badakite zeri buruzkoak diren gai nagusiak, zein den testuaren ideia orokorra eta zein diren testuaren hartzaileak.
- ▼ Ez dute arazorik, ezta ere, pertsonaien ezaugarri psikologikoak, aldartea eta ezaugarri moralak harrapatzeko, ez eta kontatutako historiaren giroa eta tonu emotiboa ulertzeko ere, argi adierazirik dauden bitartean.
- ▼ Hau da, testuak modu hitzez hitzekoenetan eta esplizituenetan ulertzen dituzte, aldeztatik ezagutza konplexuak behar ez dituzten bitartean (bizitzaren ezagupenari dagokionez eta arlo akademikoko ezagupen batzuei dagokienez).

9

### 2.2.2

#### **Irakurketaren arloko zein gaitasun ez dituzte menperatzen gure ikasleek**

- ▼ Gure ikasleek, halere, zailtasunak izaten dituzte sakontasun eta *pentsamenduko fintasun* handiagoak eskatzen dituen beste irakurketa mota batean. Hartara, esate baterako, aukera batzuen artean testuaren helburua adierazten duena zein den bereizi behar badute, ikasleek joera izaten dute, oro har, testuaren xede orokorrari –xehetasunik gabe– dagozkion aukerak hautatzeko, erantzun zuzena emateko gaiaren sakoneko aldera jotzea eta testuaren testuingurua aintzat hartzea eskatzen duten aukeren kaltetan.
- ▼ Zailtasunak izaten dituzte, halaber, inongo laguntzarik gabe testuaren ideia nagusia zein den ondorioztatzeko; aukera batzuen artean hautatu behar dutenean, berriz, zailtasun gutxiago izaten dituzte.
- ▼ Zailtasunak izaten dituzte testu baten informazioa hierarkikoki antolatzeko.

- ▼ Ikasleek huts egiten dute testuan zehar antolatutako informazioa kontuan hartzeko eskatzen zaienean; hau da, informazioa testuaren gune jakin batean ez dagoenean.
- ▼ Zailtasun hori bera aurkitzen dute galdera bati erantzuteko bi testu desberdinetako informazioa erlazionatu behar dutenean.
- ▼ Zailtasunak izaten dituzte, halaber, egin beharrekoak testuren egitura ulertzea eskatzen duenean. Hau da, badakite atalak identifikatzen, eta atal bakoitza zeri buruzkoa den, eta atalen artean zein erlazio dagoen.
- ▼ Ikasleek, era berean, zailtasunak izaten dituzte testuan informazioa bilatzen dutenean baldintza bat justifikatzeko edo suposizio edo hipotesi bat egiaztatzeko. Zailtasunak izaten dituzte, halaber, testuan baldintza batzuk beteko dituen informazioa bilatu behar dutenean.
- ▼ Halaber, zailtasunak izaten dituzte proposatzen zaien lanak inplikazio bat duenean: esate baterako, beren ezagupenak, bizitzakoak nahiz akademikoak, erlazionatzea testuaren informazioa interpretatzeko. Badirudi arrakala bat badagoela batetik haien esperientzien, ezagupenen eta ideien eta bestetik testuek transmititzen duten informazioaren artean. Hori dela eta, arazoak izaten dituzte epai kritikoak egiteko testuaren edukiari buruz, bizitzari buruz badakitenetik abiatuta.

## 3

**Irakurketa- eta idazketa-planaren helburuak**

**Irakurketa-planaren helburua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden ikasle guztiek beren irakurtzeko gaitasunak hobetzea eta irakurtzeko ohitura eraginkorrak garatzea, bai eta irakurtzeko zaletasuna garatzea ere.**

- ▼ Irakurtzeko gaitasunen artean, honakoak daude: testu bateko informazioa aurkitzeko eta ateratzeko gaitasuna; testua orokorrean ulertzeko gaitasuna; testua interpretatzeko eta norberaren moduan berregiteko gaitasuna; irakurritako edukiari buruzko balorazio pertsonalak eta kritikoak egiteko gaitasuna, eta testuaren alderdi formal eta linguistikoei buruz gogoeta egiteko gaitasuna.
- ▼ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek gauza izan behar dute era guztietako testuak irakurtzeko, ulertzeko eta ekoizteko, ahozkoak nahiz idatzizkoak; eskola arlokoak nahiz eskola arloaz kanpokoak; prosa jarraitua (narrazio testuak, testu deskriptiboak, azaltzaileak eta argudioak edo jarraibideak ematekoak) nahiz testu etenak (formularioak, iragarkiak, grafikoak, taulak edo mapak) izan.

**Gure asmoa da Bigarren Hezkuntzako irakasle guztiak helburu horretan inplikatzeko, hau da, irakurketan inplikaturiko gaitasun guztiak hobetzea curriculumeko eta irakurtzeko ohiturako arlo guztietan.**

- ▼ Ikasleen gaitasunak hobetzea irakasle guztien lana da, ez soilik Hizkuntza eta Literaturako irakasleen lana.
- ▼ Betebehar hori ez da soilik konponduko arlo guztietako testuak irakurriz; izan ere, irakurketarako jarreraren aldetik eta alderdi kognitiboaren aldetik baldintza batzuk badaude, curriculumeko arlo guztietan agertzen direnak. Hori dela eta, soilik Hizkuntza eta Literaturaren arloan oinarrituriko irakurketa- eta idazketa-plan baten ikuspegia aurrerapauso bat izanen litzateke, bai, baina ez litzateke nahikoa izanen.

**Aurreko helburuekin bat, helburua da ikastetxea inplikatzeko irakurketan inplikaturiko gaitasunak hobetzen.**

- ▼ Irakasleen beren ikasgeletan banaka egiten duten lana garrantzitsua eta funtsezkoa bada ere, ez da nahikoa. Jarduera horiek koordinatzen badira eta guztiak norabide berean enfokatzeko badira, irakasle bakoitzaren ahaleginaren eta lanaren eragina biderkatu egingen dira.
- ▼ Hori dela eta, beharrezkoa izanen da ikastetxe bakoitzak *ikastetxeko irakurketa- eta idazketa-plana izatea*, eta bertan jasotzea eta deskribatzea ikastetxean bi arlo horiek garatzeko benetan egiten dena. Kontua ez da soilik agiri formal koherente eta ongi diseinatu bat egitea. Benetan inporta duena da planak irakasleek egunero, ez soilik noizbehinka edo modu anekdotikoan, gauzatzen dituzten jarduera errealak koordinatzea.

**Aurreko guztia biderkatu egingen da familiak eta gizartea, oro har, inplikatzen badira. Horrenbestez, helburu hori lotuta dago ikastetxeaz kanpoko instantzia horiek guztiak inplikatzeko beharrekkin.**

- ▼ Planaren helburu garrantzitsu bat da familien informazioa, sentsibilizazioa eta laguntza bilatzea. Gizartearen betekizuna da, halaber, aurretik aipatu diren arlo guztietan egiten ari dena hobetzeko eta ezagutzeko aldeko giroa sortzea.

## Irakurketa- eta idazketa-planaren oinarriak

### 4.1 Irakurketaren kontzeptua

Irakurmena curriculumeko zeharkako trebetasun bat da, izatez interaktiboa dena; trebetasun hori hobeki definitzen da *irakurri ikasteko* helburuaren arabera *irakurtzen ikastea* helburuaren arabera baino.

Irakurketaren kontzeptuak berarekin dakar haren tratamendua (irakaskuntza) era askotako testuak ulertzeko eta interpretatzeko gaitasunean oinarritua egotea, eta testu horiek lotzea agertzen direneko testuinguruarekin, halako moduan non ikasleak gauza izanen diren informazioa berreskuratzeke, idatzien asmoei buruz gogoeta egiteko, egileek mezuak transmititzeko erabilitako baliabideak ezagutzeko, irakurleengan eragina izateko eta testuaren egituratik eta estilotik abiatuta esanahiak ondorioztatzeko.

Horrenbestez, kontua da ikasleek egungo gizartean jarduteko behar dituzten irakurtzeko gaitasuna eta gaitasuna edukitzea.

DBHko curriculumak, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak ezarritakoak, DBHko ikasleek garatu beharreko zortzi oinarritzko gaitasun jaso zituen. Horien artean, komunikazio linguistikorako gaitasuna nabarmentzen da, eta honakoa esan nahi du: “hizkuntza tresna gisa erabiltzea ahozko eta idatzizko komunikaziorako; errealitatea irudikatzeke, interpretatzeko eta ulertzeko; ezagutza eraikitzeke eta komunikatzeko, eta pentsamendua, emozioak eta jokabidea antolatzeke eta norberaren buruan erregulatzeko”.

Bestalde, PISA irakurketaren kontzeptu horretan oinarritzen da ikasleek irakurtzeko gaitasunean duten errendimenduaren maila aztertzeke eta ebaluatzeke. Horretarako, izan ere, eginbehar batzuk proposatzen ditu (ulertzea, interpretatzea edo gogoeta egitea), erabilera mota desberdinak dituzten testu idatzien aukera zabal batetik abiatuta (ikasteko erabiltzea edo norberarentzat erabiltzea, besteak beste).

PISArekin eta DBHko curriculum berriekekin lotuta, ondoriozta daiteke irakurketa- eta idazketa-planak honako alderdiak azpimarratu behar dituela:

Irakurketa eta idazketa ikasteko bitarteko gisa.

Irakurketa aberaste pertsonalerako bide gisa, ikuspuntu estetiko batetik, besteren esperientzien bitartez, eta norberaren ezagupenatarako eta aberastasunerako bide gisa.


Irakurketa norberaren garapenerako, garapen afektiborako eta jokabide egokiak hartzeko bide gisa.

## 4.2

### Irakurketa eta idazketa curriculumaren arloetan

Irakasleak arlo bakoitzean aukeratzen duen prestakuntza-ikuspegia oso ere garrantzitsua da irakurtzeko gaitasunean inplikaturiko faktoreak garatzeko. Adibidez, buruz ikasteen oso zentratuak dagoen ikuspegi batek *informazioa berreskuratzearekin* lotutako gaitasunak garatuko ditu, baina ez ditu hainbeste garatuko *ulermen orokorrean edo testuen interpretazioan eta berregitean* eragina duten garaitasunak. Gaitasunen garapena eta esanahian oinarrituriko ikaskuntza gehiago azpimarratzen dituen ikuspegi batek, berriz, aipatu gaitasun horiek garatuko ditu.

Horixe da Howard Gardnerrek “adimen diziplinatua” deitu izan duena. Ikus hurrengo irudia:



Eskakizun arruntak honela antola daitezke:

#### a. Gaitasun kognitiboak (adibideak):

- ▼ Analisisan eta sintesian oinarritutako ikuspegiak.
- ▼ Baldintzak eta ondorioak bereiztea.
- ▼ Hitzaldi edo testu bat laburbiltzea.

<sup>1</sup> GARDNER, Howard (2005): *Las cinco mentes del futuro*, Barcelona, Editorial Paidós.

- ▼ Ohartutako zerbaiten “zergatiari” buruzko azalpenak ematea.
- ▼ Argudiatzerakoan edo azalpen bat egiterakoan ordena bati jarraitzea.
- ▼ Atalen arteko erlazioak aztertzea (kausa-ondorioa, eta abar).
- ▼ Testu baten edo lerrokada baten ideia nagusia ateratzea.

#### **b. Ohiturak eta jarrerak (adibideak):**

- ▼ Lanean jarraitutasuna izateko ohitura.
- ▼ Proposatutako lanak erreparatzea, zuzenak diren egiaztatzeko (arreta, xehetasunak zaintzea...).
- ▼ Lan egiteko ordena eta sistema.

#### **c. Aldez aurretiko ezagupenak:**

- ▼ Arloetako ezagupenak nola egituratzen diren.
- ▼ Ezagupenen arteko erlazioak.
- ▼ Errealitatea azaltzeko ezagupenak erabiltzeko gaitasuna.

### **4.3**

#### **Irakurketa eta idazketa ikasgelan txertatzea**

Irakurketa- eta idazketa-planak biak irakaskuntzan txertatzeko modua jasoko du, betiere ahozko adierazpena ahaztu gabe, ikasgelan gauzatu beharreko beste eginkizun bat balitz bezala, haietarako artifizialki sortutako esparru bat gorde gabe. Kontua da eguneroko eginbeharretan txertatzea, beste lan bat balira bezala.

Informazioaren eta gaitasun digitalaren tratamendua Bigarren Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasunetako bat dira. Gaitasun horren ardatzetako bat da *informaziotik ezagutzara pasatzeko* trebetasuna. Bada, informazioa nagusiki bi bidetatik iristen zaio ikasleari: irakaslearen ahozko azalpenen bitartez eta idatzizko testuen bitartez (testuliburuak, idatzizko oharra...). Jasotako informazioa abiapuntu hartuta, ikasleak ezagutza landu behar du, irakasleak proposaturiko lanen bitartez. Komenigarria da, horrenbestez, irakurketa- eta idazketa-planean haiekin loturiko lanak zehaztea ikasgelako eguneroko lanean, ikasgai bat irakasten denean.



## Nola txertatu irakurketa eguneroko eginbehar baten gisara?



15

### 4.4 Planaren ebaluazioa

Proiektu honetan aurkezturiko printzipioak eta lanen proposamena adituek (gaian adituak diren pertsonak, bai irakurketari dagokionez, bai hobekuntza planei dagokienez) baloratuko dituzte. Gainera, jasotzen diren neurrien egokitasunari eta tratamenduari dagokienez, ikastetxeek egiten dituzten iradokizunak txertatu ahalko dira.

Hiru une bereiz litezke planaren ebaluazioan.

- ❯ Plana “berez” ebaluatzea.
- ❯ Planaren garapena ebaluatzea (jarraipena).
- ❯ Planaren eraginak ebaluatzea.

## Ikastetxeko irakurketa- eta idazketa-plana

## 5.1

## Zer den irakurketa- eta idazketa-plan bat

Irakurketa- eta idazketa-plan batek testuen ulermenarekin eta haien sorkuntzarekin –idatzizkoak nahiz ahozkoak izan– lotutako alderdi guztiak guztien artean lantzeko ikastetxeak hartzen duen konpromisoa jasotzen du. Horrenbestez, planean bi alderdi bereizi beharko lirateke: irakasle guztien egiazko konpromisoa, irakasuntza-praktika egokietan gauzaten dena, eta plana bera, agiria bat den aldetik.

Dimentsio bikoitz horrek berak balio du azaltzeko berariazko planik ez duten ikastetxe askok irakurketan emaitza hobekak lortzen dituztela plan-agiri egokiak dituzten beste ikastetxe batzuek baino, azken horietan egiazki inork ez baitu plana praktikara eramateko konpromisorik hartzen, formalki bai, konpromisoa hartzen duen arren.

16

Irakurketa- eta idazketa-plan batek ikasturtean zehar praktikara eramanez diren jarduerak zehazten ditu. Jarduera horiek zehatzak eta praktikakoak izanen dira, eta 5.3 atalean aurkezten diren printzipioetan oinarrituko dira (besteak beste, irakurketarekin loturiko gaietako ikerketa zientifikoak nahikoa azkar aurreratzen duelako, bai nazio mailan, bai nazioartean).

Irakurketa- eta idazketa-planari forma emateko, eskema ugari erabil daitezke. Agian, errazenetako bat da nork, zer, nola, noiz eta non galderei erantzuten diona.

- ▼ **Nork:** hau da, zein irakaslek hartzen duten konpromisoa idazketan inplikaturiko gaitasunak hobetzeko neurrien bat aurrera eramateko.
- ▼ **Zer:** hau da, zein neurri ezarriko diren ikastetxean, didaktika-sailean eta ikasgelan.
- ▼ **Nola:** hau da, nola lan egingen den ikastetxean, ikasmaita bakoitzean eta gai bakoitzean.
- ▼ **Noiz:** hau da, eguneko, asteko edo ikasturteko zein unetan landuko diren neurri horiek.
- ▼ **Non:** hau da, zein inguruetan landuko den irakurketa (liburutegian, ikasgela barruan edo ikasgelatik kanpo...)

Ikus dezagun lan horretarako erabil litekeen koadro sinoptiko bat: Ikasturte bakoitzean, arloz arlo garatuko diren jarduerak zehaztuko dira. Hartara, ikuspegi orokor bat lortzen da, ikasturteen arabera eta arloen arabera, eta errazago gertatuko da hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

		Natur zientziak	Gorputz hezkuntza	Gizarte zientziak GH	Hizkuntza ofizialak	Hizkuntza	Matematika	Plastika eta Ikus-Heziketa	Musika	Teknologia	Herritartasuna
DBHko ikasmaitiak	1.a										
	2.a										
	3.a										
	4.a										

## 5.2 Planaren ezaugarriak, idatzizko dokumentua den aldetik

Planaren alderdi dokumentala ahal den txikiena da. Kontua ez da agiri teoriko batzuk egitea, baizik eta ahal den fideltasun handienarekin urtean zehar eginen dena eta egin dena baloratzea (dozena erdi bat orrialderekin nahikoa izan daiteke).

Horrenbestez, planak urtero irakurriaren ulermenean inplikaturiko alderdiak lantzeko irakasleek hartuko duten konpromisoa jaso du, bai eta aurreko ikasturtean alderdi horiek landu dituzten irakasleen balorazioa ere.

Komenigarria da plana lantzerakoan ikastetxeetan akordioak, konpromisoak eta abar jasotzeko erabili ohi diren dokumentuen eskemari jarraitzea.

### 5.3 Printzipioak

Ondoren, irakurketa- eta idazketa-plana egiterakoan kontuan hartu beharreko printzipio batzuk azalduko ditugu:

#### **A. Testuak, ahozkoak zein idatzizkoak, ulertzerakoan eta sortzerakoan ikasleek zailtasun handienak dituzten alderdiak azpimarratzea**

Irakurketa- eta idazketa-plan bat egiterakoan, garrantzi handikoa da proposatzen diren neurriak irakurmenaren ebaluazio desberdinetan antzemandako beharrei egokitzea, barnekoei –zentroak berak egindakoak– zein kanpokoei –hezkuntza administrazioak egindakoak– (kontuan izan PISAren emaitzak, dokumentu honetako beste atal batean komentatutakoak).

#### **B. Kopuruak ez du hainbeste inporta; kalitatea da inporta duena.**

Batzuetan, gure sentipena da ikasleek asko irakurtzea dela garrantzia duena. Egia bada ere irakurtzeko ohiturak irakurketa hobetzen laguntzen duela, kontuan hartuta ikasgeletan denboraren aldetik dauden mugak, azpimarratu beharra dago batzuetan hobe dela irakurgaien kopurua gutxitzea eta irakurketa horiek sistematikoki eta modu sakonean egitea, betiere proposaturiko irakurketen helburuak bistatik galdu gabe.

#### **C. Abaguneak bilatzea**

Irakurketa- eta idazketa-plan batean garrantzi handikoa da testuak lantzeko aukerak deskubritzea, bai ikastetxe mailan, bai ikasgela mailan ere. Ez dago irizpide orokorrik. Arlo edo gai bakoitzean, irakasleak une pribilegiatuak aurkituko ditu irakurketa bere ikasleekin praktikatzeko, berari dagokion gaien lan egiten duen bitartean. Horrenbestez, irakurketa-planak ez du berarekin gainkarga bat ekarri behar ikasgelako ohiko lanean.

#### **D. Ez da nahikoa ikasgelako eguneroko eginbeharretan testuak sartzea**

Garrantzitsua da ikasgelan lantzeko testuak sartzea, baina ez da nahikoa. Garrantzitsuena da *testu horiek irakurtzen irakastea*, testuen esanahia aurkitzen laguntzea eta haiei buruz gogoeta egitea. Gai horiek berariaz irakatsi behar dira, ikasgelako ikaskuntzaren tresna gisa hartuta.

#### **E. Irakurtzeko prozesu guztiak lantzea**

Irakasle guztiek erabiltzen duten kontzeptu inplizitua da irakurtzeak berarekin ekar dezakeela soilik lantzea irakurketan inplikaturiko prozesuetako batzuk.

Komenigarria da irakurketa-plan batean irakurtzeko prozesu guztiak aintzat hartzea: irakurtzea informazioa berreskuratuzko; irakurtzea testuaren esanahi orokorra harrapatuzko; irakurtzea testuaren edukia ahoz edo idatziz interpretatzeko eta berregiteko; irakurtzea formari eta edukiari buruz gogoeta egiteko. Komenigarria da, halaber, irakurtzeko estrategia batzuk aintzat hartzea: irakurri aurretik komenigarria litzateke alde aurretiko ezagupenak aktibatzea edo aurreikuspenak egitea; irakurri bitartean, berriz, zalantzak argitu behar dira, eta hipotesi berriak egin; irakurri ondoren, ideia nagusia identifikatu behar da, laburpenak egin behar dira, galderak egin eta erantzun behar dira.

## **F. Mota guztietako testuak lantzea**

Arlo bakoitzean aukerak sortzen dira testu mota desberdinak lantzeko. Esate baterako, narrazio eta deskribapen testuak (ez soilik Hizkuntzaren arloan), azalpen testuak (testuliburuak edo eskolako eskuliburuak osatzen dituzten testu didaktikoetan sartzen direnak), argudio-testuak, curriculumeko arloetako material desberdinetan sakontzen dutenak, bai eta testu inductiboak ere, jarraibideak eman eta jarduerak arautzen dituztenak. Horiek guztiek egitura bereziak dituzte, eta egitura horiek elkarreaginezko lan bat exijitzen dute irakurketa hobetzeko eta idazketa lanak proposatzeko. Ikasleei era askotako testuak eskaini behar zaizkie, erabilera-testuinguru desberdinetarako: eskolako testuak, jolasteko testuak, testu sozialak, administratiboak, komunikabi-deetakoak, informazioaren eta komunikazioaren teknologietakoak eta abar.

19

## **G. Irakurketa eta idazketa elkarren osagarri**

Irakurketa eta idazketa elkarren osagarriak diren bi jarduera dira. Irakurketan esanahiak ateratzen ditugu testu jakin batetik abiatuta, eta testuak sortzerakoan, idazketaren bitartez, gorputza ematen diogu buruan daukagun eduki bati. Idazten ikasterakoan, testua antolatzeke teknika batzuk behar ditugu, eta horiek irakurketa hobea ekarriko dute, eta alderantziz.

## **H. Ahaleginak eta elkarren osagarritasuna batzea**

Irakurketa-planak irakasle bakoitzak bere aldetik egiten dituen ahaleginak batu eta biderkatu nahi ditu, ikasleen irakurmena hobetzeko. Izan ere, irakasle guztiek beren lankideek zer egiten duten jakitea jada aurrerapauso handia da. Gainera, arlo guztiak elkarren osagarriak izatea bilatzen bada, eragina askoz ere sakonagoa izanen da.

## **I. Zeregin zehatzak proposatzea**

Printzipio eta irizpide horiek guztiak ikasleentzako zereginetan mamitu behar dira: ideia nagusiak atera, informazioa bilatu, hipotesi bat finkatu edo

ezeztatu, ikerketa lan bat egin eta abar. Zeregin horiek guztiak arlo jakin bati lotuta egonen dira, eta ez dute emendiozko lanik ekarriko eguneroko lanetan. Horrenbestez, tresna-izaera bat izanen dute arloko helburuei dagokienez.

#### **J. Ezagutza antolatzeako estrategiak irakastea lagungarria da irakurketa lantzeko**

Irakurriaren ulermenean inplikaturiko eginbehar askok lotura dute informazioa antolatzeako eta ezagutza lantzeko estrategia batzuen garapenarekin; esate baterako, informazioa hautatzea, eskemak eta sintesiak egiteko ahalmena, era guztietako testuen ikuspegiak bereiztea, informazioa beste formatu batzuekin berregitea eta abar.

#### **K. Irakasleak inplikatzea**

Ikasle talde bati eskolak ematen dizkieten irakasle guzti-guztiak inplikatu gabe, nekez eramanen dugu aurrera irakurketa hobetzeko plan bat, nahiz eta formalki ongi prestaturiko agiri batean, edo, are gehiago, KPBAk onetsitako agiri batean, jasota egon. Irakurketa-planaren arrakasta, neurri handi batean, hura aurrera eramateko irakasleek hartzen duten konpromisoaren menpean dago. Horri dagokio, izan ere, neurriak bere metodologia propioari eta bere idiosinkrasiari egokitzea; hori dela eta, berrikuntzaren sormena eta ikuspegia funtsezkoa da irakasle bakoitzak irakurketa hobetzen laguntzeko ardura bere gain hartzeko.

20

#### **L. Informazio iturrien elkarren osagarritasuna**

Irakasle guzti-guztien erronka da lortzea irakasleak gauza izan daitezten informazioa ezagupen bilatzeko. Hau da, irakasleek zentzua eta esanahia irakasleen azalpenetatik eta testuen irakurketatik abiatuta deskubritu behar dute (eskolarako eskuliburuak, eskuz hartutako oharra, kontsulta liburuak, proposaturiko irakurgaiak eta abar). Bada, taldearen aurrean eginiko ahozko azalpena da irakasleek duten tresna egokienetako bat irakasleei testuak ulertzen laguntzeko estrategiak txertatzen laguntzeko. Azalpena ahozko testu bat da, eta hori den aldetik, komunikatzeko helburua duten testu guztien ezaugarriak bete behar ditu. Alderdi hori guztiz estalirik dago irakaskuntza lanean esperientzia eta trebetasuna duen edozein irakasleren kasuan; hala eta guztiz ere, hemen proposatzen dena da irakasleak irakasleak kontziente egitea ahozko testuak duten testu-egituraz (hau da, ikasgelan emandako azalpenen egituraz). Alderdi hori askotan gutxiegi erabili da eta ez da horren didaktikari buruzko azterlan nahikorik egin, irakasgai magistralak izan duen ospe txarraren ondorioz; hala eta guztiz ere, oratoria eta erretorika ikastaroetan ikuspegi horri eutsi zaio. Horrenbestez, irakasleak konturatzen direnean eduki bat azaltzea ez dela “hitz egitea hitz egite hutsagatik”, baizik eta argitasuna eta interesa bereizgarri dituen plan sistematiko bat betetzea;

orduan hori guztia aplikatu ahalko du testu bat azaldu, idatzi edo irakurri behar duenean.

## 5.4

### Jarduketa zehatzak: eginbeharren proposamenak

Ondoren garatu beharreko balizko jardueren edo eginbeharren zerrenda bat ematen dugu. Batzuk ikastetxearen erabakiei buruzkoak dira eta besteak irakasleek beren ikasgaien edo arloen irakaskuntzan modu arruntean sar ditzaketenak eta ulertuzko irakurketa zuzenean edo zeharka hobetzen laguntzen dutenak.

#### A. Eskolako liburutegia

Eskolako liburutegia baliabide ezin hobeia izan daiteke irakurmenean inplikaturiko ahalmenak hobetzeko. Liburu-fondoa antolatzea, ordutegiak ezartzea eta funtzionamenduaren arduradunak izendatzea funtzionamendu egokirako baldintzak dira. Adierazle on bat izanen litzateke maileguan eman diren liburuaren kopurua eta ikastetxeko ikasleen kopurua alderatzea.

#### B. Irakurketa sustatzea

Irakaskuntza sustatzera bideraturiko jarduera guztiak, ikastetxean aurreikusitakoak –esate baterako, irakurketa sustatzea, egileen bisitak, kanpainak, omenaldiak egitea, urteurrenak ospatzea eta abar–, horri buruzko atal batean jaso beharko lirateke.

#### C. Ikerketa lanak

Ikerketa lanak egitea aukera on bat da irakurketarekin loturiko gaitasun batzuk praktikan jartzeko; esate baterako, informazioa hautatzea, sintesia, testuen produkzioa, informazioa ikusizko euskarriekin eta euskarri grafikoekin aurkeztea, haien ahozko azalpena eta abar. Arlo guztietan lan-eskema berari jarraitu behar zaio, ikasleak ez despistatzeko. Komenigarria da, halaber, eskolako liburutegia informazio iturri desberdinak kokatzeko ezinbesteko baliabide gisa txertatzea.

#### D. Ikasgelako koadernoak

Ohiko praktika da hau bigarren hezkuntzako ikastetxe askotan, eta aukera egokia da, bidenabar, irakurketarekin eta idazketarekin loturiko prozesuak hobetzeko alderdi oso interesgarri batzuk lantzeko. Ikaslearen koadernoan idatzizko oharra hartzeko eta haiek antolatzeko ohitura, eskemak egiteko

ohiturak eta abarrek ordena izateko, lan egiteko eta sintesiaz baliatzeko ohiturak garatzen dituzte. Ongi legoke irakasleak, aldizka, ikasleen koadernoak begiratzea eta haiek kontuan izatea bai ikasgaia ebaluatzeko, bai ikasgelan proposaturiko lanen egokitasuna egiaztatzeko.

### **E. Arloko hiztegia**

Arlo bakoitzeko termino aipagarrienen definizio zehatzak egitea, eta haiekin batera adibideak eta informazio muntaduna jartzea baliagarriak izanen dira irakasleak bere hiztegi zientifikoa, teknikoa eta kulturala hobetzeko (kasuan kasuko arloaren arabera) eta bide bat izanen dira ibilbide bat egiteko arloetako kontzeptu garrantzitsuenetan barna. Lan hori interesgarria da, bai amaierako produkzioagatik –ahozkoa nahiz idatzizkoa izan– bai hura prestatzeko prozesuagatik beragatik ere.

### **F. Arloko gaiak jorratzen dituzten testuak**

Arloari buruzko gaiak aztertzen dituzten testuak sartzea laguntza on bat izan daiteke irakurketan inplikaturiko gaitasunak hobetzeko. Lehenago esan dugun bezala, kopurua baino kalitatea da gehiago inporta duena. Ongi hautaturiko testuak sartzea, irakasleak egoki prestatutakoak eta ikasleekin batera ongi landutakoak, lanerako tresna on bat izanen da. Gomendagarria da testuak bi une jakinetan sartzea: unitate didaktiko baten hasieran, motibazio gisa eta gaiari testuingurua emateko, eta unitate didaktikoaren amaieran, ikasleek ikasitako edukiak aplikatu ditzaten hautaturiko testuan planteatzen den bizitza errealeko egoera bat ulertzeko. Perspektiba hori bat dator, guztiz, gaitasunen garapenean oinarrituriko ikuspegi batekin.

### **G. Ikasteko testuak**

Irakurtzen eta testuliburuak ulertzen irakastea da ikasleei *ikasten ikasteko* tresna pribilegiatu bat eskuratzea. Eskoletako liburuetan edo eskuliburuetan txertaturiko testu didaktikoak testu azaltzaileak izaten dira, beren berezitasunak dituztenak. Irakasleak testuei buruz gogoeta egin eta haien egitura analizatu beharko du. Batzuetan, izate deduktiboko egitura bat da: testuak definizio batekin hasten dira; gero gaiaren garapena dator eta bukaeran adibideak jartzen dira. Beste batzuetan egitura induktiboa dute: adibide eta kasu partikularrekin hasi eta definizio batekin bukatzen dira. Beste batzuetan kausa/ondorioa edo arazoa/konponbidea edo bestelako erlazioak ematen dira. Ikasleekin irakurtzea, noizean behin, testuliburuko galderak eta atalak eta haiei egituraz konturaztea, lagungarri gertatuko zaie batetik ideia garrantzitsuenak eta haien garapena eta bestetik adibide edo komentario huts direnak bereizteko.



## H. Kontrolak eta azterketak

Neurri horiek praktikara eramanez gero, logikoa da pentsatzea ebaluazioan kontuan hartuko diren elementu bihurtuko direla. Ikasleek ikasgelan lantzen denaren eta ebaluatzen denaren arteko erlazio hori antzematen ez badute, ez diete garrantzirik emanen horrelako alderdiei. Horrenbestez, kalifikazioaren zati bat irakurtzeko eta idazteko gaitasunarekin loturiko alderdiak aintzat hartuz eman beharko litzateke.

## I. Testuak azpimarratzea

Kontua ez da hainbeste ikasleek liburuak azpimarratzea, baizik eta ikasleei azpimarratzen irakastea; hau da, ideia garrantzitsuak eta garrantzirik gabeko ideiak bereizten. Guztien arteko eztabaida edo taldekako eztabaida lan horretarako metodologia egokiak dira. Teknika ezaguna eta zaharra da, eta guztiok praktikatu dugu eta praktikatzen dugu, eta argi dago eraginkorra dela.

## J. Laburpenak egitea

Aurreko atalean adierazitakoak berdin balio du atal honetan. Laburpena sintesiak egiteko ariketa egokia da. Irakurtzeko gaitasunetan, ikasleengan zailtasun handiena sortzen duena da. Ahozko nahiz idatzizko laburpenak egin daitezke, edo ahozko testuen (adierazpenak, azalpenak...) nahiz idatzizko testuen laburpenak, bai eta dokumentaletako, bideoetako eta abarretako laburpenak ere. Gaitasuna bera da, nahiz eta laburtu behar den informazioa aurkezten deneko formatuaren arabera modulatu beharko den. Aipamen berezia merezi du informazioaren sintesia, zeina iturri desberdinetatik baitator: horixe da ikerketa lanen kasua.

## K. Eskema edo mapa kontzeptualak egitea

Gaiaren edo galderaren eskema egitea trebetasun garrantzitsua da testu baten ulermen-maila hobetzeko. Teknikak askotarikoak izan daitezke, eta haiei buruzko bibliografia ugari dago. Izan ere, mapa kontzeptualak egiteak oso emaitza onak eman ditu praktikara sistematikoki eraman direnean (beste kasu askotan bezala, praktika puntual hutsa ez da eraginkorra izaten). Edozein dela ere erabiltzen den teknika, helburua beti bera izanen da: testuaren edukia berregitea eta norberaren eskemei egokitzea.

## L. Idatzizko oharrak modu ordenatu eta logikoan hartzea

Idatzizko oharrak mekanikoki hartzea ez da oso lagungarri gertatzen irakurmenean inplikaturiko gaitasunak garatzeko. Idatzizko oharrak modu gogoe-tatsu, ordenatu eta logiko batean hartzea, berriz, lagungarria izan daiteke

garapen horretarako. Beste teknika batzuekin gertatzen den bezala, honetan ere ikasten da DBHn didaktikoki irakasten bada. Adibidez, praktika egokia izanen litzateke irakasleak azalpen ordenatu bat egitea ideien arteko erlazio logikoak irudikatzen dituzten eskema edo grafikoak erabiliz, eta ikasleak idatzizko oharrak hartzera bultzatzea. Batzuk errebisatzea, gainera, oso estrategia eraginkorra izanen da.

### **M. Ikaskideekin esperientziak trukitzea**


Azkenik, irakaskuntzaren praktikarako tresna berriak txertatzeko modurik onena ideiak ikaskideekin partekatzea da. Sail bereko edo beste sail batzuetako irakasleekin esperientziak modu argi eta zabalean trukitzeak aukera gehiago sortzeko bidea emanen du; eta teorian ez ezik, praktikan ere oinarrituriko aukerak ezagutzeko modua izan daiteke.

## **5.5 Planaren prestaketa**

Modu induktiboan eginen da; hau da, ikasturtearen hasieran irakasleen urteko konpromisoa jasoko da.

Sail didaktiko bakoitzak irakurketan inplikaturiko gaitasunak hobetzeko bere kideak konprometitzen diren lanetarako proposamena jasoko du, eta aztertuko du horietako zein landu ahalko diren hobekien.

Lan hori errazteko, ondoko tresna erantsi dugu.  
(*Ver pág. siguiente*)



**Irakasleek urtean zehar irakurtzeko gaitasunekin loturiko alderdi hauek lantzeko:**

	Batzuetan	Noizean behin	Aldizkatasun batez
Ikasmaila:			
Gaia:			
.....			
▼ Liburutegian laguntzea			
▼ Irakurketa sustatzen laguntzea			
▼ Ikerketa lanak egitea			
▼ Ikaslearen ikasteko koadernoak lantzea			
▼ Arloko berariazko hiztegia lantzea			
▼ Arloarekin loturiko testuak irakurtzea			
▼ Ikasteko testuak irakurtzen irakastea (testuliburuak, idatzizko oharra eta abar)			
▼ Azterketetan testuak eta horiei buruzko galderak sartzeko			
▼ Testuak azpimarratzen irakastea			
▼ Laburpenak egiten irakastea			
▼ Eskema edo mapa kontzeptualak egiten irakastea			
▼ Idatzizko oharra modu ordenatu eta logikoan hartzen irakastea			
▼ Esperientziak trukitzea			
▼ Beste batzuk: zehaztu			

Ikasketa-buruak orri hori jasoko du, konpromisoak jasotzen dituena, eta laburpen kuantitatibo bat egingen du.

Zuzendaritza taldeak har daitezkeen neurri orokorrak aztertuko ditu (liburutegia bultzatzea, irakurketa sustatzea...), irakasle-taldeei planean beren burua inplikatzeko gonbitea egingen die, borondatezkotasunaren ideia transmitituz, eta tutoreei eskolak ematen dituzten irakasleek egitera konprometitu diren ekintzen berri emanen die.

Zuzendariak Eskola Kontseiluari irakurketa-planari buruzko informazioa emanen dio, eta Urteko Programazio Orokorrean sartuko da.

## 5.6 Planaren garapenari buruzko ebaluazioa

Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuak planaren garapenari buruzko jarraipena eginen du. Horretarako, adierazle batzuk ezarriko ditu, ikastetxeek hartutako konpromisoen betetze maila baloratzeko eta jakiteko eskaintzen diren baliabideak egokiak eta nahikoak ote diren haren garapenerako, edo, bestela, beste batzuk behar ote diren.

Ikuskapen Zerbitzuaren ebaluazio atalak urteko jarraipen bat eginen du ikastetxeak plana nola ezartzen ari diren jakiteko.

Planaren eraginak egiten diren kanpoko ebaluazio desberdinetan egiaztatuko dira:

- a. 2008/2009 ikasturtea: PISA ebaluazioa eta DBHko bigarren mailako zentsuaren araberrako diagnosi-ebaluazioa.
- b. 2009/2010 ikasturtea: DBHko 2. mailan zentsuaren araberrako diagnosi-ebaluazioa eta nazio mailako ebaluazio diagnostiko orokorra DBHko 2. maila ordezkaturako duen lagin batekin.
- c. 2010/2011 ikasturtea: irakurmenaren ebaluazio monografikoa DBHko 1., 2., 3. eta 4. mailetan.

26

## 6

### Plana garatzeko kanpoko baliabideak

#### 6.1 Irakasleen prestakuntza

Hezkuntza administrazioak plan hau abian jartzeko egin behar duen lehenbiziko gauzetako bat da, 2006ko PISAren datuen emaitzekin bat, irakasle guztiak proiektu komun honetan progresiboki inplikatzeari, ez baita soilik Hizkuntzako irakasleei dagokien gai bat. Inplikazio horrek berarekin dakar lan tresna batzuk ezartzea, hain zuzen ere kasuko arloko irakaskuntzen ohiko eginbeharretan beste eginbehar batzuk gehituko ez dituztenak.

Helburu horrekin, lehenbiziko neurri gisa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak arlo bakoitzeko testuen ulermenari buruzko prestakuntza ikastaro bat antolatuko du, ikuspegi praktikoa batekin.

Helburua da Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakoitzeko pertsona bat joatea ikastarora, halako moduan non aurrerago bere lankideei ikuspegiak, metodologiak, materialak eta abar jakinarazi ahalko dizkien. Hobekuntza planetako jarduera zabalago baten abiapuntua izanen da hori. Jarduera hori, haren ikuspegia eta tratamendua ikusita, jarduera berezi gisa eskainiko da.

## 6.2 Irakasleei laguntzeko zentroetako baliabide materialak

ILZetako liburutegiak irakasleek eta ikastetxeek gero eta gehiago eskatzen duten baliabide bat dira; izan ere, errazago egiten dute gaztelaniazko, euskarazko eta ingelesezko fikziozko literaturaren azken berritasunak eskuratzea, maletak edo bizkar-zorroak maileguan ematen baitira. Maletetan hogeita hamar liburu izaten dira eta bizkar-zorroetan hamabost edo hogeita liburu.

Gainera, eremu bat ere izanen da, non curriculumeko arlo guztietako eta Haur Hezkuntzarako, Lehen Hezkuntzarako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako irakurketarako baliabide erabilgarrien bilduma bat egonen den.

## 6.3 Deialdiak

27

Irakurketa Sustatzeko sarietarako eta Hezkuntza Berriztapenaren sarietarako deialdiei eutsiko zaie.

Berriztapenaren arloko proiektuak egiteko laguntzetarako; hain zuzen ere, eskolako liburutegiaren erabilera dela-eta izanen dira. Hautaturiko ikastetxeek hautatzen diren unean jasoko dute laguntza.

Proiektuen edukiak, besteak beste, ondoren proposatzen direnetako batzuk izan ahalko dira.

- ▼ **Proiektu dokumental integratuak.** Arlo desberdinetan gai bera landuko da testu-mota eta tresna desberdinekin, baina beti toki berean: liburutegian.
- ▼ **Datu base bat sortzea,** bertan arlo bakoitzak Bigarren Hezkuntzako ikasmai-letako ikasgeletan eta ulermen-maila desberdinekin erabiliko diren testuekin.
- ▼ **Webquest.** Arlo desberdinetako irakasleek ikerketa proiektu bat diseinatuko dute. Zeregin hori liburutegian garatuko dute. Horren baitan, ikasleen irakur-

keta/idazketa lanak egonen dira. Mota guztietako testuak izanen dira lana egi-  
teko baliabideak eta lan horren formatua.

## 6.4 Webeko baliabideak

### ▼ NAFARROAKO ESKOLETAKO LIBURUTEGIAK

**<http://www.pnte.cfnavarra.es/bibliotecasescolares>**

[kontsulta: 2008ko otsailaren 18an]

Orri horretan eskura daude Hezkuntza Departamentuak eskoletako liburute-  
giak antolatzeko landu dituzten baliabide guztiak, liburutegi hori ikaskuntza-  
rako baliabideen zentroa den aldetik. Biltz bilduma ere eskuragarri egonen da,  
eta bertan irakasle guztientzako orientabideak emanen dira, ulertuzko irakur-  
ketaren, idazketaren ahozko adierazpenaren tratamenduari buruz.

### ▼ NAFARROAKO HEZKUNTZA GOBERNUA,

*Hobekuntza planak*

**<http://www.pnte.cfnavarra.es>**

[Kontsulta: 2008ko otsailaren 18a]

Irakurketarako eta idazketarako oinarrizko gaitasunen garapenerako agiriak eta  
baliabideak eskaintzen ditu:

- Ikastetxeko irakurketa-plana
- Diziplina arteko gaitasun linguistikoen garapena
- Arlo bakoitzeko testuen ulertuzko irakurketaren bitartez ikastea
- Irakurriaren ulermena
- Nola hobetu irakurriaren ulermena
- Testu motak
- Ideiak ateratzea
- Arloetako hizkuntza berezitua eta haren hiztegia
- Idaztea hobeki ulertzeko
- Laburpenak egitea
- Idatzizko oharrak hartzea
- Azterketak idaztea
- Lan akademikoak
- Berrikuspena

### ▼ KANTABRIAKO GOBERNUA, *Plan lector*. Hezkuntza Kontseilaritza

**<http://www.educantabria.es/portal>**

[Kontsulta: 2008ko otsailaren 13a]

(Irakurketa-Planera iristeko aurrena Planes y Programas esteka aukeratu behar  
da).

- ▾ ASTURIASKO PRINTZERRIAREN GOBERNUA, *Plan de lectura, escritura e investigación. Orientaciones para su elaboración, desarrollo y evaluación [on line], Hezkuntza eta Zientzia Kontseilaritza.*

<http://www.educastur.es/media/publicaciones/PLEIdeCentro.pdf>

[Kontsulta: 2008ko otsailaren 13a]

- ▾ ANDALUZIAKO JUNTA, *Plan de lectura y bibliotecas escolares en los centros educativos de Andalucía*

[http://www.juntadeandalucia.es/averroes/programasyactuaciones/plan\\_LyB.php3](http://www.juntadeandalucia.es/averroes/programasyactuaciones/plan_LyB.php3)

[Kontsulta: 2008ko otsailaren 13a]

- ▾ PLEC. *Proyecto de Lectura para Centros Escolares*

<http://www.sol-e.com/> o <http://www.plec.es/>

[Kontsulta: 2008ko otsailaren 13a]

- Irakurketarako Orientabideak emateko Zerbitzua (SOL gisa ezagutzen dena) Espainiako Argitaletxeen Gremioen Federazioaren, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioaren eta Kultura Ministerioko Liburuaren, Artxiboaren eta Liburutegien Zuzendaritza Nagusiaren proiektua da.
- Ikastetxeetarako irakurketa proiektua (PLEC izenez ezagutzen dena) Irakurketarako Orientabideak emateko Zerbitzuaren atal berri bat da.
- Bere hiru ataletan (plana, eskolako liburutegia eta erkidegoa), Ikastetxeetarako irakurketa proiektuak elementuen multzo bat eskaintzen ditu irakasleei irakurketa ikastetxeko liburutegia erabiliz lantzeko.
- Ikastetxeetarako irakurketa proiektuak aurtien Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion edukiak argitaratu ditu, eta eduki horiek Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako jada badaudenei gehitu behar zaizkie; bestalde, datorren urtean, Batxilergoko edukiak argitaratzea aurreikusi da.

29

## 6.5

### Ikastetxeei eta familiei zuzendutako kanpainak

El servicio de Ordenación e Innovación continuará publicando materiales para orientación del profesorado y ofrecerá a los centros elementos de soporte para realizar la difusión del plan.

La familia debe contribuir, junto con la escuela, a desarrollar la competencia lectora en la infancia y la adolescencia y, si es posible, a fomentar el gusto por la lectura. A veces, los padres y madres, preocupados por la lectura, no saben qué actitud deben tomar con sus hijos e hijas ante los libros. Por esta razón, se van a realizar diversas actuaciones, a través de los centros escolares, para orientar a las familias.

